

ALPES MENDIAK ZEAR

POR JUAN SAN MARTIN

Mendian arkitu nuen Mary Paz-i

MATTERHORN — CERVINO (4.477 m.).

Bart, Mont-Blanc-etik itzultzean, Bellevue-tik Les Houches-era dihoan teleferikoa galdu genun eta goiko ostatu batean gelditu bearra izan genun. Batetik nekatuta gentozelako ta bestetik illunak artu giñuzelako.

Goizerdian, teleferikoan mintzatuz goaz, Mari Paz ta biok, konprenitu eziñik gure adiskideeri zer gertatu zaien. Egunak auzer Chamonix-en alkartzekotan giñan, eta etziran agertu. Mintzatuak giñan asmoari jarraiki Mont-Blanc-era atera giñan, usterik bertan alkar arkituko giñala. Baña, etzan izan orrela. Erañegun gaberako Gôûter-eko errefujiora jo genun, ta atzo, biok bakarrik atera giñan Mont-Blanc-era. Ez billatzean, uste genun, edo gure atzetik ibilliko zirala edo Alpes-etako beste alde batera joango zirala.

Les Houches-era eltzean, gure autoan papertxo bat arkitu genun. Au poza! Lusarreta-ren oar bat zuan, esanaz, Chamonix-en nun zeuden. Gu baño ordu batzuek gercago atera omen ziran Mont-Blanc-era. Ta, konturatzeke gure autoari, erañegun, Tête Rousse-ko errefujiora jo zuten gaberako. Ta, atzo goizean, ikusirik egualdia itxura txarrekoa etorrela. Bertan-bera uztea erabaki zuten, ta Les Houches-era izultzean konturatu ziran gure autoarekin. Orduan, pena izan zuten aurrera jarraitu bear eza. Jakin izan bazuten gu goragoko errefujioan giñala, pozik igoko ziran noski.

Guk, berriz, suerte ona izan genun. Beste mendizale batzuek irten ziralarik, beretariko batzuk mendi-gidariekin, ausartu giñan goruntza abiatzen ta badaezbadako egualdiak egun guzian orrela iraun zuan, txarragora jo gabe, ta ongi atera giñan.

Chamonix-en, berek izendatutako tokian alkartu gera, ta baita laister gertatu ere Zermatt alderako jira. Artsaldean Chamonix-tik atera gera, ta illutzerako, Visp baño gorago gelditu, Saint Nikolai delako erritxo batean. Zermatt-era ez bai da auto-biderik, ta mediko tren bat artu degu an bertan, Zermatt errira igotzeko.

Zermatt-en arkitzen da Alpes guziko mendirik politena, izen aundienekoa ta sarri Suiza-ko egutegietan ikusi deguna: Matterhorn edo Cervino izenez ezagutzen dana. Zermatt-ek 1.616 metro ditu eta bere gañekaldean erpin, zorrotz, jasotzen

da Matterhorn, bere goi-neurri 4.477 metro ditualarik. Bere gallurra oñekin zapaltea da Europa guziko mendizaleen ametsa.

Mendi onek, alpinismoaren kondairan, beltzune asko egin ditu. Baña aipagarriena, lenbirikoa. 1.865-garren urtean, Whymperek antolatutako zazpi laguneko espedizioak menperatu zuan lenengo aldiz; ta, berunzkoan, gallurretik laister, zazpiretarik lau amildu ziran. 1.300 metro beerago arkitu zuten eriotza. Ta, iruretarik bat, oraindik eztu inork arkitu. Uste da, txiki-txiki eginda aldenduko zala.

Ordurarte ospetsua bazan, urte askoan gizonak menperatu eziñik zebiltzelako, ordutik onera ospetsuago egin da bere izena. Gaur oraindik ere, mendizale teknika aurreratua egoñarren, ezta erreza igotzeko, ta noizikpeinean izaten dira eriotzak. Ala ere, mendizale gogoarentzat ezta eragozpenik, eta, urtero, eundakak igotzen dira bere gallur altura.

Zermatt-en, *camping*-ean lo egin ondoren, kaleak zear gabiltza, bazterrak ikusten. Mapa on bat erosi degu. Alpinista gidariak ere izaten dira, baña oso garestiak. Ta gure boltzilloentzat Alpes-etara joatea ere ezta gutxi.

Bazkaloandoan, Lussarreta, Ojanguren (Eli) eta Hajar ta laurok oñezean atera gera, gaberako Hörnli errefujiora eltzeke. Biderik geina teleferikoan egin ditzake, baña au ere oso garestia da, ta lenengo partea lau xamarra danez, erdian dagoan estazioraño oñez, ordubete pasatuko bidean, eta andik goikora teleferikoan. Goiko estazio au, Schroarzee da, 2.582 metro ditu, ta bertatik Hörnli-ko errefujiora (3.260 m.) orduterdi pasatu egin ditugu.

Hörnli, aitz-ertz batean dago elurrez inguratutik. Bertatik zutintzen da Matterhorn-en konoa. Milla ta berreun metrotik gora aitz izugarri aren gallur zorrotza. Sorkaldera Monte Rosa ta iparraldera Dent Blanche mendi ikusgarriak agiri dira. Ozkarbi dago, ta illunabarrean Monte Rosa izenaren jabe da. Dena gorritzak azaltzen da, bere mendiburutik, egiak zear Gornergletscher-go glaziar luzea ditziraz amiltzen dalarik.

Toki gutxi da errefujioan eta gela batean sartugera bavaro batzuekin. Goizaldeko lauretarako errefujiotik irten gera, linternekin argi egiñaz. Inguruetako elurtzen zurtasunari eskerrak gaua ezta orren illuna. Whympere berberak jarraitutako bidetari ekin diogu. Baña ez gera bakarrik, beste ogeitamaren bat alpinista ere, gurekin batera xamar irten dira errefujio beretik gallurrerako asmoetan. Bost edo sei naziotakoak gera naasturik, alkarren izkuntzak ulertzen ezditugula. Abentura batera baño erromeri batera goazen itxura geiago degu, emengo soka, piolet kranpoi, iltze ta gañerako elurtzarako jantzi bereziegaitik ez balitz.

Lenengo parteak errez igotzen dira. Bearezkoa da eskuekin ormeri oratzea, naiz ta erreza izan. Arri ustela da eta kontuz ibilli bearra dago zeri ta zelan oratzen zaion. Unetan, toki gaitzagoak arkitzen dira, eta, oietan, ainbeste geraldarik, txandan jarri bear izaten gera. Orrelako toki batean, gizajo itxurazko bi ingelesekin dijoan mendi-gidari batek, aurrekaldea artu nairik, neri alde batera bultza egiteraño ausartu da, baña ni ere aman semea izaki, eta bestera bultzatu det. Ta, orroaka asi da: «Mi, Zermatto!» esanaz. Guretariko batek ez daki euskerarik, ta erderaz mintzatzen geranez, badidudi italiarzat artu gaituala. Eibartarrez esan diot: «Mendixa euria dok ala?». Arrituta bezela gelditu da. Ta, gu, aurrera.

Egunsentia badator argi apalez. Mendizale andana sakabanatuz goaz, geroago ta sakonago dijoan amiltzeari batean goruntza.



Matterhorn-en gallurrean.

(Foto J. San Martin)

Mendiaren erdi aldean igoera gaitzagoak asi dira eta sokekin alkarri lotu bearra izan degu, obeto laguntzeko. Lagunak sokako buru utzi naute. Nere gogoari zalako eskatu diet. Laurotan nagusia naiz, ta mendizale oituraz nagusienari utzitzen zaio buruzagitza, bere eskarizkoa bada.

Bi andana aurreratuak dijoaz, baña alpinistatik geienak guk baño polikiago igotzen dute, eta atzean urrunduz agiri dira; baita «Zermatto» ere, bere gizajo biak arraztaka daramazkiela. Ortarako ote ziran asierako zalaparta guziak?

Bat-batean, labarra arkitu degu aurrez-aurre. Frontoia bezelako orma bat da. Eta eregi batzuek aprobetxatuz, beat-puntentzako eldu-leku juxtuak billatuz igo gera gañekaldera. Emen dago Solvay-ko txabola, bear-ordu larrietarako edo ekaitzetik gordetzeko egiña (4.003 m.). Orduan konturatu gera, pasatu degun labarra izan bear duala Moseley amerikarra erori zana. Bere gorputza, azpikaldeko Furgen glaziarrean billatu zuten.

Emendik gallurrera arteko lenbiziko bide erdia da txarrena. Ez bakarrik aitzetan gorako igoeragaitik, bazik, une asko elur-izoztu artean dalako. Tokirik txarrenetan sokak jarriak daude, laguntzeko. Ezta orren gaitza, baña bai zenbait arrisgu duan parajea. Argi ibilli bearra da. Labankada bat naikoa litzake ixtante batean milla metro beerago gelditzeko. Ala ere, lasai ari gera gallurrera pozean. Sokekin biñan lotuta gabiltza, Lusarreta ta ni aurretik eta atzerago Eli Ojanguren eta Hajar.

Ari gorritzka batzuk pasatuta, elurartean sartu gera. Aurreko egunetan egindako mallak aprobetxatuz goaz. Uste gabe, bide zuzenetik okertzen geran unetan bakarrik izaten degu pioletakin izotza mallatu bearra, batzuetan eskuentzak eta urrengo oñentzat koxkak egiñaz.

Whymper-en adiskideak amildu ziran. Toit deritxon parajea, mendiaren iparraldera irtetzen dana, poliki-poliki, larritasunik gabe igaro degu. Ta, aurrerako guzia oso erreza da. Eragozpenik gabe, goizeko zortziterdietan eldu gera gallurrera. Ta, Whymper-ek esan zuan bezela: «mundua gure oinpean dago».

Ezta otz aundirik eta burnizko gurutzearen azpian ixeri gera zerbait jateko. Italia aldera begira, azpian Aosta-ko Cervinia zoragarria degula.

Ordu bete eman degu gallurrean. Beerunzkoa aspergarri xamarra iduritu zaigu. Ordubatetarako itzuli gera errefujiora. Ikaragarrizko jendetza zan Hörnli-ko errefujioaren inguretan. Zermatt-etik etorriak Cervino eskalatzan ikustera. Esan digute, egualdi ona dan guzian etortzen dirala orrelako jende pillak. Batzuk begira, beste batzuk teleobjetoekin fotografiak ateratzen eta, baita, zinema ere. Italiar batzuek, gure jeitze guziari, asi gallurretik eta beera, zinema atera die. Seguru aski guk inoiz ikusiko ez deguna.

Jo degu Schroarzssee-ko teleferikora ta atzoko bezela, tramurik maldatsuenan egin degu aireko ontzi onetan, ta gañerako, Zermatt errira arte, oñezean. Gure camping-ak jaso ta illunabarrerako Saint Nikolai-ratu gera. Ta, gero, gabaz, andik Chamonix-era. Azkenerako, nekatuta, loak artu bearrean nijoa autoa eramaneziñik.

DENT DU GEANT (4.014 m.).

Atzo artsaldean, Ojanguren ta Hijas Mont-Blanc-eruntza atera ziran. Gu, goizeko seiterdietarako Aiguille du Midi-ko teleferikoa artzera. Igandea ta agualdi ona danez, jende asko gera txartel ateratzen. Orduerdi barru kabinan sartzea lortu degu ta laister asi gera goraka. Plan de l'Aiguille-ko geltokian aldatu gera kabiñaz ta berriz ere gora, Aiguille du Midi-ren gallurra artu arte (3.842 m.).

Ozkarbi urdiñaren azpian agiri dira, bukaera gabe pillaka, egunsentiko eguzki printzetan dizdira Alpes-eko mendi erpiñak. Au parajien zoragarria. Ez dira gure mendiak bezelakoak, ezta Pirineoarekin ere ezin geneza konparatu. Beste era batekoak dira. Goialdeko glaziarrak Artikoan itxura dute. Inguruko Les Aiguilles aitz erpiñak berriz, arrizko ezpatak gora begira. Iparretik sorkaldera, urrutian, kate luze baten tartean, Matterhorn, guzieegandik bakarti ta zorrotz; ta berezako degu erañegungo oroitz eziaren bidezko agurra. Egoaldetik zerbait sarkaldera dakuskiugu denak menperatzen dituan Mont-Blanc, bere kasko zuria zeru urdiñean tinko duala.

Goizearen oz-miñak ikaraz gaitu bere erpetan. Jantzi guzien gañetik anoraka soñera lotua degu, ta, ala ere, otzak estu artzen gaitu. Baña, eguzkiaren urrezko printzak indartuaz dijoaz eta eguerdiko eguzki epelaren pozean goaz.

Ortan, artu degu Point Helbronner-era dijoan teleferikoa. Iru kabina launako dira eta Vallée Blanche gaindi dijoa. Izenak dion bezela, dena da zuri. Mamizko arana iduritzen zait, ta gaztanbera bezela, or-emenka eregia. Barren aldera Mer de Glace galtzen dalarik, ibai izoztu baten gisa. Beste planeta batean gaudela dirudi. Dent du Géant aizorrotz alderuntz urbilduz ari da teleferikoa. Eldu gera Italiarekin mugaturik dagon Helbronner-era (3.462 m.).

Emendik irten orduko goizeko zortzirak iritxi zaizkigu. Kranpoiak oñetakoeri lotu ta abiatu gera. Col du Géant (3.365 m.) leproa igaroz, elurrezko malda batean gora asi gera. Gure gjarretan sentitzen degu erañegungo nekealdia. *Couloir* oietako kanal batera sartu gabe igotzearren, glaziarraren goi xamarrean ezkerreara jo degu. *Rimaya* baten eregiak banantzen gaitu aitzagandik. Lusarreta ta biok, sokarekin alkarri lotuak gera, ta *rimaya* pasatzeko tokirik onena aukeratzen ari gera. Billatu diogu eregiari une estuago bat, ta, batak bestea zainduaz, txandaka pasatu degu metro bat zabal baño geiago duan eregia. Aitzaren alde artu degunean, bertan-bera utzi ditugu pioleta ta kranpoiak, bueltara arte. Emendik aurrera elur gutxi baita.

Arru batean gora ari gera. Ez dira toki zallak, baña arri puskatua da. Beraz, begia argi erabilli bearra dago, oñak eta eskuak nun ipintzen diran konturatuz. Poliki-poliki, altura irabaziz goaz. Ortzaren lepora ixa elduan, diedro kanal bate-tik sartu gera. Gutxi gora-bera, inguru onetatik amildu zan Emile Rey italiar mendi-gidaria, 1895-garren urteko dagonillean, Dent du Géant igo eta beeruzkoan. Eundaka metroetan eroi zan Tacul-go glaziarrera. Berakin zijoan Carson Roberts englandarrak dionez, nekatuta omen zetorren ta loka egoan arri batean oinkada galdu omen zuan. Orrelako ustekabeetan mendizale on askok galdu dute bizia.

Lepo gaña artu degu. Elur asko dago. Ta, nola ez degun pioletik eta kranpoi-

rik, astiro eta kentuz igaro gera elurraren tontorretik aizorrotzaren ormada arte. Mendia, larogetamar metroko monolito aizorrotz baten bukatzen da. Ortik datorric izentzat, «erraldoiaren ortza».

Aintziñako alpinistak itzal aundia zioten Dent du Géant oni. Grands Charmoz eta Grépon ere onen aurretik igoak ziran, onekin ausartzen ez ziralarik. Urteetan aizorrotz onen zearka ibilli ondoren, ta anitz aldiz mendizaleen asmoak eroriaz, 1882-garren urtean, italiar mendi-gidarien bi famili Sella eta Maquignaz anaiak, alkarren ondoren zebiltzaten lenengoz igo nairik. Sella anaiak lortu zuten lenbiziko aldiz igotzea, baña, batez, ere, guzien lana izan zan. Maquignaz anaiak lau egun eraman zituzten aizorrotzean, iltzeak sartuaz eta sokak jarriaz, orman zear bide bat zabaltzeko.

Orma barrena zearkatuz pasatu gera egoaldetik sarkaldeko aitzertzera. Lenengo zatian bada pasarte txar bat, baña gero badatoz errezagoak. Ez gera bakarrik. Batzuek beruntza datoz. Gure aurretik iru alemaniar dijoaz. Beren alderuntz artu degu, usterik bide onetik joango dirala. Gu, bi bakarrik gera, ta oiek, iru. Orregaitik azkarrago aurreratzen gera. Arrigarria bada ere, oietako batek irurogeta urteak ditu. Gure agureak baña gartsuago dabil noski.

Zain egoteke, aal zan unetan aurreratzen gera. Lusarreta lenengoaren parera eldu da eta nik ere aurrea artu diet irugarrenari eta bigarrenari. Alkarren sokak naasturik dabilta. Tokitxo batean bostok alkartu gera. Aleman oiek, zerbait larrituta dauden itxura dute. Gañera, nekatuak agiri dira. Ta, mintzairaz ulertu ezarren, irriparez agurtuaz, té edaria eskeñi diegu, ta ondoren piku-pasak, azukre tontorrak eta orrelako gozokiak alkarri eman dizkiogu. Ortan eman degu denbora beruntza *rappellean* ari diran batzuek toki au igaro arte.

Datorren orma zatiak ezta itxura onik. Koxka gabeko labar bat da eta eregiak urri ditu. Gañera, ezkerrerago sartu bear gera, iparraldera, ondogabeko amiltegi baten aldera. Nai baluke, aurrekaldea uztea eskeini diogu alemaneri. Baña, ezetz. Beratako batek, erdi frantseraz eta erdi italeraz, aitzera eman digu, etzuela uste Den du Géant orren gaitza zanik eta uztera dijoaztela. Gure laguntza eskeini diegu. Baña, ezezkoan, eskerrak emanaz, *rappel* egiteko sokak gertatzen gelditu dira.

Lusarreta, donostiar adiskidea, eskaladan nere aintziñako ikasle zana, denbora guzian aurretik dijoa, oso ausarti. Onetarako, uste det, nere denborarik onenak atzean gelditu dirala, ta bera onenean dago.

Sokak jarrita dauden pasarte txar batera eldu gera. Soka auek mendi-gidarien alkarteak jartzen dituzte mendirik ospetsuñen, premiazko pasarteetan beren lana errezteko, ta bi edo iru urtetik bein aldatzen dituzte. Eskerrak soka aueri, bereri oratuta, naikoa ondo igo ditzake, bestela iltzeak sartuz igo beariko ziran pasarte oiek. Ez bai da beste oratu lekurik. Ainbeste alpinista ibiltzen dalarik, aitzera ere leguntasunez distikor dago. Oñak bereala irristatzen dira. Unetan bearrezkoa da sokan gora pulstura igotzea. Aitza gorago ta gaiztoago da, gaiztoago ta zutiñagoa. Besoentzat nekegarria. Orain bai igartzen diodala gutxi entrenatua eta bi egun aurriz Matterhorn igotzearen ondoreari, ederki sentitzen det nere gorputza aul xamardurik dagoala.

Nekez, baña gora. Ez dago amor ematerik.

Bee aldetik iru italiar gazte agertu dira. Armiamak bezela datoz, gu baña li-rañago ta azkarrago. Arrigarria da oien bizkortasuna, aitzetan gora. Beretariko bat motelago dabil ta arek eusten die beste bieri. Bestela, aurki gure alboan lirake.



Mont-Blanc, Dent du Géant-en gallurretik ikusia.

(Foto J. San Martín).

Astiro baña seguru, azkenengo orma zatiak menderatu ditugu, ta berekin batean Dent du Géant gallur zutiña.

Elurtzako Amaren irudi bat dago puntan. Bere aldamenean alpinista andana bat ixerita. Gu ere bertan iarri gera. Amabiterdiak dira. Eguzki epela ortara prestatzen da eta orduterdi egin ditugu, andik agiri diran Alpes mendien inguru-linguru guziak begiztatuz. Au bai bazterren zoragarria! Au aspertu eziña! Mendi gaña uztea, etsi eziñazkoa da... Baña, Natura legeak lotzen ditu gure bizitzaren moldeak beste era batera. Au ezta une ameskor bat baizik. Mendizale sentipenetan, misteriozko gora naiak edo eramaten gaitu gallurrik-gallur. Gañera, gorago ta ederrago dala dirudi. Baña, gu, larri-miña darion gizarteari katigaturik gauden aurrak gera, bere korrontaren jostailu errukarriak. Ezkutuko erpak itsumustuka garamazki.

Nere barnean, gallentzearen txikitasuna nabarri det. Maiz utzi ditugu gallurak tristuraz, baña Dent du Géant onetan, iñoiz baño pena geiago sentitzen det. Gogo kezkatien biran, Lizardiren olerkia etortzen zait burura:

*Oi, zein dan ituna
beera-bear au!
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau!*

Astiro jetxi gera. Unetan, orman jarriak dauden soketan beera pultsuan eta urrengo geure sokekin *rappelak* egiñaz. Oinpean, baña milla metro beerago Ta-col-go glaziarra beti gure begien aurrean dala.

Ortza, bere zutiñean, atzean utzi dequ ta arruak zear jetxiz goaz. Glaziarraren ertzean arkitu ditugu goizean utzitako piolet eta kranpoi. Berriz ere kranpoiak oñetan jarriaz, saltu batean elur izoztuaren gañean gera. Goizetik onera asko bigundu da elurra eta erreza iduritu zaigu jeixtea. Be aldean. Col du Géant lepoaren gaindi ari gera. Pointe Helbronner aldetik Mary Paz datorkigu bide erdiruntz, ta bere laztan samurra izan det saritzat.